



# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

11.zk 2017 • 5e





SE RETRATA  
POR ENCARGO  
A  
DOMICILIO

🗨️ Jose Mari Uriarte

# ARGAZKILARI *minuteroak*

GARAI DIGITAL HONETAN, ARGAZKILARI MINUTEROEI  
BURUZ BERBA EGITEAK, ARGAZKIGINTZA EGUNEROKO ZERBAIT EZ ZEN  
GARAIETARA ERAMATEN GAITU, ARGAZKIAK NOLABAITEKO  
MISTERIO ETA EZUSTE UKITUA ZEUKAN GARAIRA.



Minuteroak argazkilari ibiltariak ziren, eta euren kamera,  
barruan objektiboa eta laborategi eramangarria zituen kaxoi bat zen. Aire  
zabalean, kalean, ateratzen zituzten argazkiak.

Bezeroari argazkia atera eta gero, berehala errebelatzen zuten,  
zuri beltzean, minutu batean entregatzeko; hortik datorkie minutero izena,  
prozesua minutu batzuk gehiago luzatzen zen arren.

LANBIDE HORI MUNDU OSOAN IZAN ZEN EZAGUNA.  
 ASMO ARTISTIKO BARIK, ARGAZKIGINTZA URRUNEKO TXOKOETARA  
 ETA JENDE GUZTIAK ORDAINTEZKO MODUKO PREZIOETAN,  
 HELARAZI ZUTEN ARTISAUAK IZAN ZIREN.


**A**rgazkilari horiek XX. mendearen bigarren hamarkadara garamatzate. Nazioarteko prentsan iragarkiak agertu ziren, *Mandel* makina eskainiz, diru asko irabazteko formula gisa. Iragarkiak azaltzen zuenez, kamera horrek ez zuen ez plaka negatiborik ezta filmik behar, erraza zen erabiltzeko eta minutu batean argazkia lortzen zen. Propaganda hori 1913an agertu zen gure inguruan, Donostiako *Novedades* aldizkari ilustratuaren orrietan.

*Mandel* makinak berehala lortu zuen arrakasta, eta minuterok agertu eta azkar biderkatu ziren. Makinaren kopiak egin ziren, eta Bartzelonako enpresa batzuek *Caldes Arús*, *Mampel* eta *Carceller* markekin merkaturatu zituzten. Rafael Garriga enpresari katalanak horrelako argazkigintzara zuzendutako zenbait produktu egin zituen, postalak, errebelagailuak, lehorgailuak eta makinak. Liburutxo bat ere argitaratu zuen, kamera deskribatzen zuen eta ondo erabiltzeko aholkuak ematen zituen *Manual del Minutero*. Denborarekin, argazkilari bakoitza, arotz eta uhalgileren baten laguntzarekin, bere makina egiten hasi zen. Hori dela eta, modu artisauan egindako hainbat kamera aurki genitzakeen, denak antzekoak, baina denak desberdinak.

Garrigak, bere eskuliburuan, V. Caldes Arúsek 1920ko hamarkadan egindako kamera deskribatzeko orduan, kanpotik bernizatuta eta barrutik belztuta zegoen 24 cm-ko zurezko kutxa gisa



deskribatzen du. Aurrealdean zenbait gida zituen, hauspoa eta objektiboa mugitzeko. Barruan bi kubeta zituen, likido errebelatzailearekin eta finkatzailearekin, eta beira esmerilatubat xasis batean, fokatzeko eta postala posizio egokian jartzeko. Barruko albo batean 100 postal gordetzeko leku txikia zeukan, eta beste aldean leihotxo txiki bat, beira gorri batekin, errebelatua kontrolatzeko. Beso artikulatu bat ere bazeraman, postala negatiboan jartzeko eta positiboa egin ahal izateko. Objektiboaren beste aldean irekigune bat zeukan, mahuka-erdi ilun batek babestua. Bertatik begiratzen zen fokatzeko, eta bertatik sartzen zen eskua, likidoak erabiltzeko. Lau kilo pisatzen zituen eta, ondorioz, tripode sendo baten gainean jarri behar zen.



📷 Minuteroaren kamara baten marrakia. J. A. Giorgio Jardelen *Fotografía* liburuan, 1962.









Klixer moduan, txartel postal motako paper sentzibilizatua (13'7x8'8 cm.) erabiltzen zuten, baina ohikoa zen, baita ere, postal erdiko tamainakoa erabiltzea. Hori, jakina, merkeagoa zen. Paperek eta likidoek latitude handia izan behar zuten, eguneko tenperaturaren gorabeherak ondo jasan behar zituzten, ez baitzuten tenperatura berari eusteko sistemarik, eta horrek eragina zuen errebelatu prozesuan: azkartasunean, kontrastean...

Minutero askok, herrietako jaietara eta ferietara joaten zirenek batez ere, dekoratuak erabiltzen zituzten; margotutako oihalak, argazkiaren fondo gisa erabiltzeko edo argazkian bertan sartzeko, bezeroak erakartzeko eta beste argazkilari batzuek bereizteko. Ohikoa zen feria berean hainbat minuterok ikustea, bakoitza bere dekoratuarekin, bata bestearen ondoan. Estructura desmuntatua

garriarekin biribilkatuta eramaten zituzten, eta hainbat motibo erakusten zituzten, mundu osoko monumentu ezagunenetatik (Egiptoko piramideak, Eiffel dorrea, Alhambra...), gertuagoko beste batzuetaraino (Portugaletoko zubi eskegia, Donostiako Alderdi Eder...). Beste batzuek gertakari historikoak gogorarazten zituzten, Plus Ultraren ibilaldia edo 2. Mundu gerrako itsasoko guduak eta aireko borrokak, besteak beste. Bazeuden autoak eta itsasontziak erakusten zituztenak ere, eta bezeroak barruan egongo balira bezala jartzen ziren bertan; toreroenak edo *bailaoreenak* ere bazeuden, bezeroak burua jar zezan aurpegian zuten hutsunean... Elementu apaingarri gisa oso ohikoa zen kartoi-harriz egindako zaldia. Erretratatua haren gainean jartzen zen, mota guztietako atrezzo elementuekin: pistolak, bakeroen edo mexikarren kapelak, txalekoak, pontxoak, etab.



📷 **Minuteroak Urkiolako San Antonio erromerian. Ezkerretik eskuinera: 1. Ezezaguna; 2. Chamorro; 3. Saturnino Gil Pérez (Vitoria-Gasteiz); 4. Felipe Ruiz (Caspe); 5. Miguel Ruiz (Caspe). 1950. urte inguruan.** Argazkia: Ricardo Doliwa.







📷 **Minuteroa bere dekoratuarekin Urkiolan, 1950.** Argazkia: Ricardo Doliwa.

## Minuteroak eta euren prozedurak

Argazkilariak jende asko elkartzen zen eta argi baldintza onak zituzten lekuetan egoten ziren. Bezeroa aurretik erabakitako lekuan jartzen zuten, dekoratuaren ondoan, kamerek alboan zeramatzen ispilu txiki baten aurrean ilea apaintzeko orrazia eskaini ondoren. Mahuka-erdiaren hutsunetik begiratzen zuten argazkia fokatzeko eta, paper sentsibilizatua kristalean jarri eta bezeroari guztiz geldik egoteko eskatu ondoren, haren arreta erakartzen saiatzen zen, honelako esamoldeekin: *Begiratu txoriari! Begiratu hona, txoriak irten behar du eta!* Horren ostean objektiboaren tapa kendu edo obturadorea sakatzen zuten, kalkulatuta zeukan denboran eta... Prest!... lehen partea. Orduan, besoa sartuz kamera barruan egin beharreko lana hasten zen, papera eta errebelatzeko eta finkatzeko likidoak manipulatu, paper gaineko negatiboa lortzeko. Horren ondoren, negatiboa beso artikulatuan jartzen zuten, objektiboaren aurrean, eta argazki



📷 **Novedades aldizkari iragarkia, 1913. urtean.**

bat ateratzen zion. Kamera barruan egin beharreko maniobrak errepikatu eta gero, kopia positiboa ateratzen zuten, eta kamera azpian zintzilik zegoen urez betetako baldetxo batean garbitu ondoren, bezeroari ematen zion, umel oraindik, inguruan zegoen jende guztiaren harridurarako. Prozesu hori, bezeroak eskatutako kopia guztietarako errepikatu behar zen, hasierako irudi negatiboa zeukan papera erabiliz.



📷 Minuteroa Madrilen, Manzanares ibaian, 1935. urtean.

Gerra zibilaren (1936-1939) ondoren, lan prekarietatearen ondorioz argazkilari horien kopurua biderkatu egin zen. Gehienetan lanpostu bat baino gehiago zituzten pertsonak ziren, eta udan batez ere, aurretik prestatutako ibilbidea egiten zuten, jai guztietatik, autobusetan, trenetan, gurdietan edo ahal zuten moduan, errepiderik ere ez zegoen lekuetara heltzeko. Azoka garrantzitsuak zeuden herrietan euren jardura araututa zegoen, eta beharrezko baimenak eskatu eta hainbat baldintza bete behar zituzten, pertsonen joan-etorria ez tratatzea, adibidez. Herri garrantzitsu horietan, minutero batzuek postu finkoa zuten parke edo plaza jakin batzuetan. 1960ko hamarkadatik aurrera kopuruak

behera egin zuen eta, 80ko hamarkadan, ia erabat desagertu ziren.

## Gure eskualdean

Minuteroek ia ez dute aztarnarik utzi udal artxibategietako dokumentazioan. Euren legatua gorde duen argazki fondorik ere ez daukagu eta, ondorioz, familien albumak dira argazkilari haien lanak aurkitzeko iturri nagusia. Ahanztura horren arrazoia, agian, geldik zeuden pertsonen edo taldeen argazki oso antzekoak egiten zitzutela izan daiteke, bakoitzak bere dekoratua edo atrezzoak eskaintzen bazuen ere.







Minuteroa Ezkurdin, Durangoko mitin karlista batean. 1935. urtean. Argazkia: C. Yanguas, Vitoria- Gasteizko Udal Atxiboa.









 Argazkilari minuterok Oiz mendiko San Kristobal erromerian. Argazkia: Indalecio Ojanguren.

## BEGIRATU TXORIARI! BEGIRATU HONA, TXORIAK IRTEN BEHAR DU ETA!

Urkiolako eta Durangoko San Antonio eta Abadiñoako San Blas erromeriak eta feriak jende asko biltzen zuten jaiak ziren. Eskualdeko jendea erakartzen zuten, eta baita inguruetako probintzietakoak ere. Oizeko San Kristobalekoak eta baseliza baten inguruko beste hainbat auzotakoek ere bazuten euren garrantzia. Beti egoten zen argazkilari minuteroren bat horrelakoetan.

San Antonio jaietan Durangotik ibili zen lehenengo argazkilari minuterok dokumentatua Vicente Moreno izan zen. 1923an argazkigintza artistikoko txabola



bat instalatu zuen, metro karratu bakoitzeko pezeta bat ordainduz. Gogoratu behar dugu San Antonio jaiak edo San Antonioak, Urkiolako ospakizuna eta feria ziren arren, 1970eko hamarkadara arte Durangoko jai garrantzitsuenak ere bazirela.

Profesional horiek gure inguruan egindakoari buruz daukagun albiste gutxietako beste bat 1937ko maiatzaren 1eko *El Alcazar* egunkarian aurkitzen dugu. Egunkari hark Mola jeneralaren erasoaldia jarraitzen zuen. Egunkarian esaten denez, Ramón Torres eta Francisco Garrido, Tierra Vasca egunka-





📷 Erretrato baten negatiboa paperean, positiboa egiteko prest.

riko erredaktoreak, atxilotu egin zuten, Durangora zihoan kamioi batean. Bertan deskribatzen zenez, *“fotógrafo ambulante, que, con sus pertrechos de <al minuto>, esperaba hacer un espléndido negocio con los milicianos que él creía estaban defendiendo Durango”*. Antza, ez zekien bi egun lehenago Durango altxatutakoen esku erorita zegoela.

Garai horretakoa izan zen, baita ere, Eibarren bizi zen baina jatorriz Burgoseko Gumiel de Hizán herri txikikoa zen Servando Juez. Gerra hasi ondoren Durangon babestu zen, familiarekin, eta argazkilari minuteru gisa egin zuen lan bertan. Gerra amaitu ostean Eibarrera itzuli zen, Durangoko alkateak ziurtatutako *“desafecto al glorioso movimiento nacional”* txostenarekin. Argazkiak egiten jarraitu zuen Eibarko Untzaga plazan, eta inguruko eta alboetako herrietako jai garrantzitsu guztietara ere joaten zen.

Durangon, argazkilariak euren dekoratuekin jartzen ziren Ezkurdiko pilotalekuko horma luzean. Urkiolan kokalekua aldatzen zuten, eguneko argiaren edo dantzaldiak egiten ziren lekuen arabera. Hainbat elkartzen ziren, eta erantsitako argazkian ikusten dugunez, adiskidetasuna zen nagusi euren artean, lehiakideak ziren arren. Horietako bat Miguel Ruiz da, Kantabriarra jaiotzez eta Caspen bizizena, Urkiolako eta Durangoko San Antonioetan hutsik egiten ez zuena. Tenez bidaiatzen zuen bere kamerarekin, zalditxoarekin eta dekoratuekin, hainbat hilabete irauten zuen ibilbidean, Kataluniara, Aragoira, Euskal Herrira, Kantabriara eta Asturiasera helduz.

## Argazkilari minuterook gaur egun

Lanbidea ia erabat desagertu zen 1980ko hamarkadaren hasieran. Salbuespena Ángel Román Allas Segoviako argazkilaria izango litzateke. 90 urte ditu, eta oraindik ere kalera irteten jarraitzen du, bere kamera minuteroarekin eta dekoratuekin, nahi duen orori bere zerbitzua eskaintzeko.

Batzuek lanbideari ekin diote berriro, soldata irabazteko modu alternatibo gisa. Beste leku batzuen artean, Madrilen ikus ditzakegu, Plaza Nagusian edo Errege Jauregiaren ondoan. Jai garrantzitsuetan ere berriro ikus ditzakegu, Iruñeko San Fermin jaietan, besteak beste. Enrique Peñak ez du hutsik egiten Iruñean, eta Aste Nagusian Bilbora ere hurbiltzen da.

Aurten, 2017an, hain zuzen ere, *Segoviafoto* argazki jardunaldietan, Espainiako hamar bat argazkilari minuteru elkartu dira, eta omenaldia eskaini zaio Ángel Románi, kameraren ostean 75 urtez aritzeagatik.

Jose Mari Uriarte

IKERLARIA